

Koldo Mitxelena eta Joan Coromines: Hizkuntzalaritzak sortutako adiskidetasuna

Josep del Rio

Itziar Adurizi, bi mundu hauek batzeko lan egiten baitu.

Erreteriatik Bartzelonara 576 kilometro daude. Distantzia handia ematen du, baina ez da hainbestekoa, eta ez da oztopo izango joan den mendeko bi hizkuntzalari garrantzitsu hauen erlazioaren berri emateko. Joan Coromines 1905ean jaio zen. Koldo Mitxelena 1915ean. Bata familia katalantzale baten barnean hazita, bestea abertzaleen baitan. Biek gerra zibilaren ondorioak sentitu zituzten larruan: Corominesek exilioaren bidea hartu zuen eta katedra Chicagoko Unibertsitatean lortu zuen. Mitxelena, berriz, boluntario joan zen gerrara, preso hartu zuten eta heriotza-zigorrera kondenatu zuten. Pena kommutatu zioten 30 urteko kartzelaren truke. Ez zen faxistek kartzelara eramango zuten azken aldia izango, izan ere, Erregimenaren kontrako elkartzeko batean egoteagatik bueltatuko da espetxera. Ez dugu deusik gehiago esango bi hizkuntzalarion biografiaz, artikuluak baitaude kontsultatzeko moduan.

Gerrako belaunaldiaren bizitza gogorra izan zen benetan, baina, zailtasunak zailtasun, Coromines eta Mitxelena derrigorrezko erreferentziako hizkuntzalari bihurtu ziren. Aditu kataluniarraren kasuan, penintsulako toponimiaren arloan maisu agertzen zaigu, batzuetan zorrotz-zorrotza, beste batzuetan ez hainbeste —*aliquando bonus dormitat Homerus*—. Zalantzarik gabe, etimologia bihurtu zen Corominesentzat interes handieneko gaia eta akademiko kataluniarrak *bascoide* izendatzen zuen substratuaren erroak topatzeko ahalegin berezia egin zuen¹.

1. *Bascoide*tzat hartutako interpretazio asko zalantzan jarri izan dira.

Koldo Mitxelena y Joan Coromines: la amistad surgida en la Lingüística

Joan Coromines (1905) y Koldo Mitxelena (1915) pertenecen a la generación que padeció directamente las consecuencias de la guerra civil; el primero sufrió el exilio, y el segundo la cárcel. Pero, a pesar de las dificultades, los dos llegaron a ser lingüistas de prestigio indiscutible. El catalán se especializó en la toponimia de la península. Destacó sobre todo en el campo de la etimología y, en particular, en la búsqueda de las raíces del substrato *bascoide*. El vasco, por su parte, es considerado el padre de la Filología vasca, fundamentalmente por su obra *Fonética histórica vasca* (FHV). Ambos son referencias imprescindibles de la Lingüística diacrónica. Sus caminos se encontraron en un congreso sobre ciencias onomásticas en Salamanca, en 1954.

Se respetaban y admiraban mutuamente y coincidían en el objeto de estudio. Son frecuentes las citas de uno en las obras del otro: Mitxelena menciona en sus obras a Coromines y recomienda su lectura. Hay autores que consideran que el *Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana* (DCELC) de Coromines fue

Mitxelenaren kasuan, berriz, Euskal Filologiaren aitatzat hartu izan da. Ikerketa hauek berroinarritu zituen *Fonética histórica vasca* obra-rekin. Euskaltzaindiak euskara batzeko irizpideak finkatzeko eskatu zion, adibidez, akordioa lortzea ezinezkoa zela ematen zuenean. Datu gutxi horiek errenteriarren figuraren garrantzia ikustarazten digute.

Bi hizkuntzalarion bideak elkartu ziren, patuak jota baleude bezala. Dakigunez, Zientzia Onomastikoen 5. Kongresuan elkar ezagutu zuten, Salamancan. Hori 1954. urtean gertatu zen. Corominesek, frantsesez, bere "Onomasticon Cataloniae" ponentzia irakurriko du kongresuan eta hantxe haien arteko adiskidetasuna hasiko da.

Elkarren artean miresmena eta esker ona zegoen, dudarik gabe. Ikasgaiek ere batzen zituzten. Honen harira, Solàk (1999:197) honako hau idatzi zuen Corominesen euskarari buruzko interesa agerian uzten duena:

Coromines va integrar de ple el basc en l'estudi de les dues llengües hispàniques (per exemple, va determinar de manera precisa el paper que havia jugat aquella llengua en els Pirineus)...

Haien izenak oso ezagunak dira arlo zientifikoan erakutsitako asmatze eta maisutasunarengatik. Areago, haien lanen erreferentzia bibliografikoak nahitaezkoak dira hizkuntza diakronian lan egiten duenarentzat. Ispiluan bezala, bataren lanaren admirazioa eta interesa bestearen ikerketetan islatzen dira. Honela, adibidez, Mitxelenak berri laburra idazten du *Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana* (DCELC) argitalpenaren kariaz liluratu dagoela esanez. Hiztegi honek, 1954. urtean argitaratuak, Mitxelenaren baitan biziki eragingo du. Horren adibide moduan, errenteriarren oharren batzuk ekarri ditugu hona:

una fuente de inspiración para el proyecto del *Diccionario General Vasco* de Mitxelena. Coromines, por su parte, también cita al vasco. Por ejemplo, publica una crítica entusiasta sobre FHV de Mitxelena (lo considera el "Verner vasco").

Reconocido todo ello, el objeto de este artículo no es elaborar un inventario de las referencias recíprocas, sino mostrar la amistad, el respeto y la admiración que sentían mutuamente. Me valdré de dos ejemplos como última muestra de ello: de las palabras de José Antonio Pascual, alumno-discípulo de ambos, y de un dato.



Erronkari bailara, 1971. Ezkerretik eskuinera: Isabel Múgica, Ciriaco Bueno (bertako gidaria), Koldo Mitxelena, Joan Coromines eta Pedro Miguel Etxenike.

Los que, para usar sus mismas palabras, andamos más o menos extraviados por el laberinto euskérico, estamos en deuda con el señor Corominas por prestarnos tantas veces, en nuestras muchas vacilaciones, un sólido apoyo exterior: incluso llega a ofrecernos más de una vez la explicación directa de voces vascas. (Mitzelena, 1955:13).

Izan ere, DCELCen argitalpenak Mitxelena eta beste euskalariak sakonki hunkitu zituen. Mitxelena hainbestearino harritu zuen, non inspirazio bihurtu zitzaion *Orotariko Euskal Hiztegia* proiektuari ekin zionean.

Henrike Knörrek ere (1989) argitalpen honek ekarri zituen eraginez hitz egiten du. Corominesen hiztegia eredu bihurtu zen *Diccionario etimológico vasco* moldatzeko orduan. Eta horregatik ere, Knörren iritziz, Mitxelenak bere asmoak aldatu zituen²: Azkueren hiztegiaren errebisatzeko ideia utzi zuen bere hiztegia idazteko³.

Mitxelenak Coromines hizkuntzalaritzan jakitun ikusten du eta bere obrak gomendatzen ditu. Honela, *Anotaciones para un curso de Lingüística general* liburuan, Mitxelenak bere teorizazioaren maisu handien obren artean aipatzen ditu Humboldt, Coşeriu, Saussure, eta ez da Corominesez ahazten, *immanentzia* eta *sistematizitate* kontzeptuak azaltzean, adibidez.

Norabide berean, maiz gomendatzen zuen Mitxelenak Corominesen obren kontsulta, gutun pertsonaletan, edo mende hartako hizkuntzalarien artean aipatzen zuen, esaten genuen bezala:

Pero, ¿cómo es posible que se hable de rom. **agrano* sin citar, por ej., a Corominas o a otros autores de diccionario etimológicos y obras de lin. hist. romance? Nos quedamos con Meyer-Lübke y ELH 1.

Para léxico cast. (y peninsular en general) tiene que citar siempre el dicc. (grande) de Corominas, del cual va a salir ahora una 2. ed.

2. Ikus hemen Ibon Sarasolaren "Koldo Mitxelena hiztegi-gilea". [Erredakzio taldea].

3. Corominesek *Diccionario etimológico vasco*ren idazteko prozesuan parte hartu zuela gogoratzea komeni da.

Pascual responde de esta manera a Fresán:

Michelena, el refinamiento absoluto; incapaz de publicar un trabajo, por modesto que fuera, sin tratar de convertirlo en una obra maestra. Corominas, convencido de que «lo mejor es enemigo de lo bueno», podía sacar adelante algunas lucubraciones, en las que no le importaba que quedaran unos cabos sueltos. (Fresán 2009:42).

El dato es el siguiente: La Universidad del País Vasco quiso nombrar a Coromines doctor *honoris causa* en el año del fallecimiento de Koldo Mitxelena. Coromines no lo quiso aceptar como señal de duelo por la muerte del lingüista y amigo vasco.

Quisiera terminar mi aportación a este centenario reconociendo la gran labor de ambos lingüistas. Nos han dejado unas obras de calado tan profundo que nos hacen sentirnos enanos sobre espaldas de gigantes.

Adibideek elkarrekiko miresmena salatzen dute. Henrike Knörrek (1989:21), *Fonética Histórica Vascaren* argiltapenari buruz hitz egiten duenean Corominesek *Breves notas vascorrománicas a propósito de la Fonética de Michelena* artikuluan erabilitako deitzaileak biltzen ditu: "valor extraordinario", "Verner vasco", etab. Knörren artikuluan bertan Mitxelena eta Coromines artzain batekin mintzatzen ari diren argazki batzuk ere badaude, norbaitek bere jakin-mina asebeta nahi baldin badu. Beste obra batean, *Tópica Hespérica* (Coromines 1972:293), Bartzelonako hizkuntzalariak bere esker ona eskaintzen dio Mitxelenari:

Me limitaré a poner de relieve [...] lo mucho que debo a las obras del sabio guipuzcoano y en particular a su *Fonética*, [...].

Eta, bere aldetik, Mitxelenak Corominesen abileziak goraiatzen ditu:

Es menos sabido que, a juzgar por *ok(h)ela* 'trozo' < *buccella*, esta pronunciación sobrevivió

como ya indicó Corominas, a la apertura de i, u breve en e, o. (Mitxelena 1972:11).

En los números 12-3 de FLV [...] hay unas muy valiosas contribuciones de J. Coromines, cuyo índice puede verse en FLV 5 (1973), 14-19, en que, entre otras cosas, trata del problema de la acentuación de los topónimos vascos. (Mitxelena 1973:250).

Beste batean, berriz, Mitxelenak etimologo kataluniarraren adierazpenak zuzentzen dizkio, zientzia honelakoa baita:

No creemos que tenga relación alguna con *vasc. burintxa, urxintx, etc., 'ardilla'*, como sugiere Corominas I, 255 b (s.v. *ardilla*, n. 5), siguiendo a Schuchardt. (Agud et Mitxelena 1968:81).

Jakina, Corominesen hipotesien egokitasuna askotan zalantzarria da, baina aurkezpen metodologikoak egitasun ematen die, Antoni Grieraren euskal fantasia etimologikoekin konparatuta.

Dena den, ez dugu gure bi hizkuntzalarien erreferentzia guztien inbentarioa egingo. Eman-dako adibideak nahikoak izango zaizkigu elkarren arteko harreman ona ulertzeko. Eskainitakoekin, adiskidetasun, errespetu eta mirespen sentimenduak zeudela ikus dezakegu. Hori esanda, agian interesgarria izango litzakete bi hizkuntzalari hauen gainean azken datu pare gehitzea.

Lehendabizikoa zita bat da. Kasu honetan, antzinako ikasle baten hitzak dira, José Antonio Pascualenak. Mitxelenagandik ikasi zuen hizkuntzalaritza, gero Corominesen DCELC antolatzen lagundu zion eta, hortaz, bere dizipulu bihurtu zen. J. Fresánek elkarrizketa egin zion eta Pascualek bi hizkuntzalariak horrela deskribatu zituen:

Michelena, el refinamiento absoluto; incapaz de publicar un trabajo, por modesto que fuera, sin tratar de convertirlo en una obra maestra. Corominas, convencido de que «lo mejor es enemigo de lo bueno», podía sacar adelante algunas lucubraciones, en las que no le importaba que quedaran unos cabos sueltos. (Fresán 2009:42).

Bigarren datua estimu eta humanitate sokenaren keinua da. 1987. urtean Koldo Mitxelena hil egin zen eta, urte berean, Euskal Herriko Unibertsitateak Corominesen jakinarazten dio Letra Fakultateko Gobernu-Batzordeak Errektoretzari proposamen bat aurkeztu diola. *Honoris causa* doktore izendatu nahi dute “en atención a sus relevantes estudios sobre lingüística indoeuropea, románica y en especial hispánica, y muy particularmente por sus valiosas aportaciones a la lingüística, dialectología y toponimia vascas y pirenaicas”. Corominesek bere lagunaren heriotzaren kariaz uko egingo dio.

Azken buruan, adibide hauek guztiek hizkuntzalaritzaren bi maisuak zirriborrotzen lagundu digute. Kalkulatu ezinezko jakintza utzi digute, luzaroan iraungo duten gaurkotasan handiko obrak dira, bibliografia berezitan ezin direnak falta. Finean, ez gara erraldoien sorbaldetan igoak diren ipotzak baino.

AGUD M., et K. MITXELENA (1968): “Nombres de la “comadreja” en el País Vasco”. *ASJU* 2, 1968, 73-85.

COROMINES, J. (1972): *Tópica Hespérica. Estudio sobre los antiguos dialectos, el substrato y la toponimia romances*. Madrid: Editorial Gredos.

FRESÁN, J. (2009): “El paraíso perdido de José Antonio Pascual”. *Clarín: Revista de nueva literatura*, 14, 84, 38-46.

KNÖRR, H. (1989): “Koldo Mitxelena, El hombre y el científico” (traducción de l'article original dins *Revista de Catalunya*, n. 18. 1988), *Bilduma*, 3. Erretereria: Comissió de Cultura de l'Ajuntament d'Erretereria, 17-30.

MITXELENA, K. (1955): “*Diccionario critico etimologico de la lengua castellana, por J. Corominas*. Vol. TI, OH-K. Editorial Gredos. Madrid, 1954”. *ASJU*, 11, XIII-XXVII.

— (1972): “Nota marginal sobre la huella latina en la lengua vasca”. *FLV*, 4 (10), 5-25.

— (1973): 3. arg. *Apellidos vascos*. Donostia: Txertoa.

SOLÀ, J. (ed) (1999): “L'obra de Joan Coromines”. *L'obra de Joan Coromines: cicle d'estudi i homenatge*. Sabadell: Fundació Caixa De Sabadell, 211-219.